



Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako Partaidetzazko Aurrekontuak 2014 ekimenaren azken txanpan sartu da. Urola Erdiko herritarrek martxoan eta apirilean proposatu eta lehenetsitako proiektuak juridikoki bideragarriak diren eta zenbat kostu izango duten aztertzen ari dira, eta txosten horien emaitzak kontuan hartuta, orain da behin betiko proiektuak aukeratzeko garaia, eskualde bakoitzari dagozkion 500.000 euroak zertan gastatuko diren erabakitzeko garaia. Horretarako, bi batzar ireki egingo dira eta parte hartzera animatzen dituzte herritarrak Diputazioak eta Udalak.

Honako egunetan eta tokietan izango dira batzarrak:

Irailak 23, 19:00etan, Azkoitiko Elkargunean.

Irailak 30, 19:00etan, Azpeitiko udaletxean.